



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

EUSKO LEGEBILTZARREKO PRENTSA ARETOAREN ERABERRITZE INTEGRALA
PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA
PARTIKULARREN ORRIAREN KARATULA

Espediente-zka.: 06-200-11

Kontratazioaren xedea: Eusko Legebiltzarreko prentsa-aretoaren eraberritze integrala diseinatzea, zuzentzea eta gauzatzea.

Prozedura: Irekia

1.- KONTRATUAREN XEDEA. KONTRATUAK BARNE HARTZEN DITUEN ONDASUNAK DEFINITZEA

Xede nagusia

- Eusko Legebiltzarreko prentsa-aretoa eraberritzea, oinarrietan definitutako jarraibideen arabera.

1.1.- Produktuen jardueraren araberako sailkapen estatistikako (CPA-2008) nomenklaturatik dagokien kodetzea adieraztea: 43.99.9

1.2.- CPVko erreferentzia-zenbakia (Batzordearen 213/2008 Araudia (EB), 2007ko irailaren 28koa): 45314000-1

1.3.- Kontratu-izaera duten eta espedientean barne hartu diren agiriak adieraztea:

Klausula administratibo partikularren plegua.

Klausula teknikoen orria.

Kontratua (esleipena egin eta gero).

1.4.- Erantzun beharreko administrazio-beharrak: xede nagusian deskribatu direnak.

1.5.- Loteak egotea (bai/ez): ez

1.6.- Aldaerak barne hartzeko aukera (bai/ez): bai
Aldaera bat aurkeztu ahal izango da.





2.- KONTRATAZIO ORGANOA: Eusko Legebiltzarreko Mahaia.

3.- ESPEDIENTE ZENBAKIA: 06-200-11

4.- ARAUTZE BATERATUAREN MENDEKO KONTRATUA DA (bai/ez): ez

5.- KONTRATU ERRESERBATUA DA:

- Enplegu Zentro Bereziatarako (bai/ez): ez
- Enplegu babestuko programen esparruan gauzatzeko betebeharra (bai/ez): ez

Erreserbak eragindako langileen ehuneko 70, gutxienez, ezintasunak dituzten eta ezintasun horien garrantzia edo larritasuna dela-eta, lanbide-jarduera baldintza arruntetan garatu ezin duten pertsonak izatea eskatzen du.

6.- PREMIAZKO IZAPIDETZEA (bai/ez): ez

7.- LIZITAZIO ELEKTRONIKOAREN PROZEDURA BAIMENTZEN DA (bai/ez): ez

8.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA. ORRIAK ETA GAINERAKO AGIRI INTERESGARRIAK ETA ENPLEGU BABESARI, INGURUMENARI ETA EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKO INFORMAZIOA JASOTZEKO LEKUA:

8.1.- Kontratatzailearen profila: erakundeko web-etik eskuratuko da eta kontratazio-organoaren kontratu-jarduerari buruzko datuak eta informazioak jasotzen ditu.

8.2.- Orriak eta gainerako agiriak eskuratzeko lekua:

Web-orria: www.parlamentovasco.euskolegebiltzarra.org (Zerbitzuak> Lizitazioak)

Harremanetarako: Mantentze Atala

Tel.: 945 004286

Fax-a: 945 135406

E-posta: monton@parlam.euskadi.net





8.3.- Enplegu-babesari, ingurumenari eta emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko informazioa

Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailaren Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzatik eskura dezake enpresa lizitatzailerak enplegu-babes, lan-baldintza eta laneko arriskuen prebentzioaren alorretan indarrean dauden xedapenei buruzko informazioa, kontratua gauzatzeko aplikatu daitekeena, eta bertatik eskura ditzake, halaber, kasuan-kasuan kontratuaren orrietan aurreikusitako klausula gehigarriak.

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren Ingurumen Sailburuordetzan eskuratu ahal izango du, IHOBE sozietatearen bitartez, ingurumen-esparruan indarrean dauden xedapenei buruzko informazioa, kontratua gauzatzeko aplikatu daitekeena, eta bertan eskura ditzake, halaber, kasuan-kasuan kontratuaren orrietan aurreikusitako klausula gehigarriak.

Horrezaz gainera, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea organismo autonomoan eskura dezake emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean indarrean dauden xedapenei buruzko informazioa, kontratua gauzatzeko aplikatu daitekeena, eta bertan eskura ditzake, halaber, kasuan-kasuan kontratuaren orrietan aurreikusitako klausula gehigarriak.

9.- LIZITAZIOAREN AURREKONTUA:

9.1.- HAKLAOren 71.6.b) artikuluan adierazten den kontratuen gastuaren muga maximoa: 370.000 euro (BEZ barne). Kantitate horretatik, BEZari honakoa dagokio: 56.440,68 euro.

9.2.- Prezioaren zati bat Administrazioak eman beharreko ondasunekin ordaintzen bada, ondasun horiei dagokien lizitazio-aurrekontuaren zenbatekoa (SPKLko 270. artikulua):

10.- AURREKONTU KONTSIGNAZIOA (urterokoen arabera banaketa, hala badagokio): 2010 eta 2011ko aurrekontuetako 63201/00 aurrekontu-saila (Instalazio Orokorrak), 2010eko aurrekontuko 64301/00 aurrekontu-saila (Bulegoko altzariak) eta 2011ko aurrekontuko 64305/00 aurrekontu-saila (Ekipo bereziak).

11.- INSTALAZIOAREN IRAUPENA ETA/EDO EMATE DATA: 2011ko abuztuko eta iraileko 6 aste.

11.1.- Zatiko epeak: ez dira aurreikusi.





- 12.- KONTRATUAREN LUZAPENA (bai/ez): ez da aurreikusi.
12.1.- Egin daitekeen luzapen kopurua:
12.2.- Luzapen bakoitzaren iraupena:
- 13.- ORDAINKETA MODUAK: transferentzia esleipenaren guztizko zenbatekoagatik, behin betiko harreraren akta egin eta gero.
- 14.- KONTUKO ABONUAK: ez dira aurreikusi.
14.1.- Kontuko abonua onar ditzaketan eragiketarako definitzea:
14.2.- Prestaketa-eragiketarako baloratzeko irizpideak eta modua:
14.3.- Kontuko abonua amortizatzeko plana:
14.4.- Eskainiko den bermea:
- 15.- PREZIOAK BERRIKUSTEA (bai/ez): ez da aurreikusi.
15.1.- Aplikatzeko metodoa edo sistema:
15.2.- Fabrikazio-hornikuntzako kontratua, ezar daitekeen eredu-formula:
- 16.- PREZIOA ALDATZEKO KLAUSULA, EPEAREKIN EDO ERRENDIMENDUAREKIN LOTUTAKO HELBURU JAKIN BATZUEN BETETZEAREN ARABERA (bai/ez): ez.
- 17.- BERMEAK:
17.1.- Behin-behineko bermea: ez da ezarri.
17.2.- Behin betiko bermea: esleipen-prezioaren gaineko % 5, BEZik gabe.
17.3.- Berme osagarria: SPKLko 83.2. artikuluko hipotesia:
- 18.- PUBLIZITATE GASTUEN ZENBATEKOA: bai
- 19.- AZPIKONTRATAZIOA: bai
Gehieneko ehunekoa (Beste ehunekorik ezarri ezean, SPKLren 210.2 e) artikuluan ezarritako ehuneko 60a izango da gehienekoa):
- 20.- KONTRATUA GAUZATZEKO LEKUA: Eusko Legebiltzarra, Becerro de Bengoa kalea, z/g, 01005 Vitoria-Gasteiz.





21.- HAKLAOko 67.5.c) ARTIKULUAREN KASUAN, ADMINISTRAZIOAK DAGOKION ZAINZA ETA AZTERKETA AHALMENA GAUZATZEKO MODUA: arrunta.

22.- ONDASUNEN INSTALAZIOA, INSTALAZIOAREN EZAUGARRIAK ETA GUZTIZKO AURREKONTUAREN BARRUAN DUEN KOSTUA: ez da guztizko aurrekontutik bereizten.

23.- ADMINISTRAZIOAK ONDASUNEN KALITATEAREN GAINEAN ERRESERBATUTA DITUEN EGIAZTAPENAK: Ematea Eusko Legebiltzarrak eskatu bezala gauzatu eta ondoren egingo da ordainketa da.

24.- MATERIALA JASOTZEAN BERAU AZTERTZEKO JARRAITUKO DEN PROZEDURA: Mantentze Atalak txostena luzatuko du.

25.- SPKLko 196.4 ARTIKULUAN ZERRENDATUTAKO EZ GAIN, BESTELAKO ZIGORRAK: ez dira aurreikusi.

26.- PREZIOARENA EZ BESTE KONTRATU KLAUSULA BATZUK URRATZEAGATIKO ZIGORRAK: esleipendunak bere eskaintzan adierazitako epea urratzen bada (eta Eusko Legebiltzarrari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik bada izan ezik), esleipenaren guztizko zenbatekoaren % 1eko zigorra ezarriko da atzerapen-egun bakoitzagatik, 2011ko irailaren 19tik aurrera.

27.- ZATI KO URRATZEEK KONTRATUAREN SUNTSIARAZPENA ERAGINGO DUTEN HIPOTESIAK: Sektore Publikoko Kontratuari buruzko 30/2007 Legean (206. eta 275. artikuluetan) aurreikusitakoak.

28.- KONTRATU HAU PLEGUAREN 34. KLAUSULAN BARNE HARTUTAKO KONFIDENTZIALTASUN ARAUEN MENDE DAGO: bai.

29.- HARRERA EPEA ETA BERME EPEA:

29.1.- Harrera-epea: sei aste, gehienez ere.





29.2.- Berme-epea: 2 urteko berme-epea ezarri da.

30.- KONTRATUA GAUZATZEKO HIZKUNTZ BALDINTZAK:

Kontratu hau EAEko Autonomia Estatutuak bere 6. artikuluan ezarritako hizkuntz ofizialtasun bikoitzaren erregimenaren mende dago eta azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, euskararen erabileraren normalkuntzari buruzkoak, eta berau garatzen duen araudiak, arautzen dute.

Bi hizkuntza ofizialen erabilera kontratua gauzatzeko baldintza da eta baldintza hori urratzen bada, kontratuaren edozein klausula urratzean oro har aurrekusi diren ondorioak eragingo dira.

Kontratu gauzatzean kontuan hartuko da orriaren 33.1. klausulan hitzartutakoa.

31. KONTRATUA GAUZATZEKO INGURUMEN EDO GIZARTE IZAERAKO BALDINTZA BEREZIAK (lizitatzailak III. eranskinean barne hartutako konpromisoa bete eta aurkeztu beharko du): ez daude.

31.1. Ingurumen-izaerakoak:

31.2. Gizarte-izaerakoak:

31.3. Besteak: Lizitatzailak hitz eman behar du, dagokion III. eranskinean jasotako agiria sinatuz eta aurkeztuz, kontratua gauzatzeko behar diren baliabideak jarriko dituela eta kontratua gauzatzeko baldintza bereziak beteko dituela.

Nahitaezko azpikontratazioa, karatula honetako 19 puntuan hala ezarrita egonez gero.

32.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA:

Lekua: Eusko Legebiltzarra, Erregistro Orokorra, Becerro de Bengoa kalea, z/g, Vitoria-Gasteiz. Ordutegia: 9:00etatik 14:00etara.

32.1.- Eskaintzaren posta bidezko bidalketa jakinarazteko bitartekoak, hala badagokio:

Fax-a: 945 135406

33.- PROZEDURAN PARTE HARTZEKO KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOKO ETA KAUDIMEN TEKNIKOKO BALDINTZAK:





33.1.- Interesdunek jarraian aipatuko diren bitartekoak erabiliz ziurtatuko dituzte kaudimen ekonomiko eta finantzarioko eta kaudimen tekniko edo profesionaleko baldintzak, SPKLko 64. eta 66. artikuluen arabera:

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa:

- a. Finantza-entitateen adierazpen egokiak edo, hala badagokio, lanbide-arriskuen kalte-ordainetako aseguru bat dagoela ziurtatzen duen agiria:
- b. Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutako urteko kontuak. Kontuak erregistro ofizialetan aurkezteko betebeharririk ez duten enpresariak kontabilitate-liburuak, behar den bezala legezatuak, aurkez ditzakete ziurtapena egiteko.
- c. Negozio-bolumen orokorraren aitortpena eta, hala badagokio, kontratuaren xede diren jardueren esparruko negozio-bolumenarena. Enpresariak jarduera sortu edo hasi zuen dataren arabera erabilgarri dauden azken hiru ekitaldietako datuak aurkeztuko dira, gehienez ere, aipatutako negozio-bolumenaren erreferentziak dauden neurrian.

- Kaudimen teknikoa:

- a. Azken hiru urteetan egindako lan nagusien zerrenda, kontratu honen xedearen antzekoak direnena; bakoitzaren kasuan zenbatekoa, datak eta hartzaile publikoa edo pribatua adieraziko dira. Eskumeneko organoak luzatutako edo ontzat emandako ziurtapenen bitartez ziurtatuko da, baldin eta hartzailea sektore publikoko entitate bat bada; eta hartzailea erosle pribatu bat bada, berak luzatutako ziurtapen bidez egingo da edo, ziurtapenik ez badago, enpresariaren adierazpen baten bitartez.
- b. Kontratua gauzatzeko langile teknikoak edo unitate teknikoak adieraziko dira, enpresaren barrukoak izan edo ez izan, batez ere kalitate-kontrolaz arduratuko direnak.
- c. Enpresariaren eta enpresako zuzendaritza-karguen titulu akademikoak eta profesionalak, enpresak eraberritzea egiteko erabiliko dituenak, batez ere kalitate-kontrolaz arduratuko direnenak.
- d. Enpresaren azken hiru urteetako urteko batezbesteko langileen eta bere zuzendaritza-karguen garrantziaren adierazpena.
- e. Hornituko diren produktuen laginak, deskribapenak eta argazkiak; guztien egiazkotasuna ziurtatu ahal izango da, sektore publikoko entitate kontratatzaileak eskatzen badu.





33.2.- Pleguaren III. eranskinak bitarteko pertsonal edo material batzuk eskatzen baditu, lizitatuak kontratua gauzatzeko bitarteko horiek erabiliko dituelako konpromisoa hartu eta aurkeztuko du, aipatutako III. eranskinean agertzen den ereduaren arabera: ez da aurreikusi.

34.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK:

34.1.- Esleipen-irizpide bakar bat egotea: Prezio baxuagoa (bai/ez): ez.

34.2.- Esleipenaren oinarri izango diren irizpide objektiboak, esleitu zaien haztapenaren arabera garrantzitsuenetik garrantzi gutxiago duenera antolatuta, horiek baloratzeko ezarritako formulekin batera (formulak aplikatuz baloratu beharreko irizpideen balorazioa, balorazioaren azken fasean egingo da): bai.

Eskaintzak baloratzeko irizpideak

Gehienez ere lor daitekeen puntuazioa 100 puntukoa da

Jasotako irizpideak baloratzeko erabiliko diren irizpideak honako hauek izango dira:

1.- Konponbidea. 30 puntu gehienez ere.

Ebaluazio-epaimahaiaren ustez, proposatutako beharrei erantzun onena emango dion aurkeztutako konponbidea; oso garrantzitsua da egiten den eskaintza argi eta garbi adieraztea. Ebaluazio-epaimahaiak baloratuko ditu estaldura, zoru, argiztapen, altzari, eta abarrekin erlazioan proposatutako material guztiaren materialak, estaldurak, eta abar.

Aipatutako organoak 0-10 puntu arteko balorazioa egingo du proposatutako konponbide bakoitzaren kasuan.

Formula: $30 \text{ puntu} \times \text{balorazioa}/10$

2.- Ekipamenduaren balorazio teknikoa. 30 puntu gehienez ere.

Aurkeztutako konponbidearen prestazio teknikoak, bereziki ekipamendu elektronikoari dagozkionak, Baldintza Teknikoen Orriaren arabera.

0-10 puntu arteko balorazioa egingo da proposatutako ekipoei dagokienez.

Formula: $30 \text{ puntu} \times \text{balorazioa}/10$





3.- Eskaintza ekonomikoa. 30 puntu gehienez ere.

Eskaintzarik ekonomikoenak lortuko du puntuazio maximoa.

Formula: 30 puntu x Eskaintza ekonomikoenaren balioa/Eskaintzaren balioa

4.- Erabiltzeko erraztasuna, bereziki ganbera robotizatuaren kokapen-sistemarena, grabazio-ekipoarena eta gainerako elementu guztiena, langile ez-teknikoek kudeatu ahal izan ditzaten. Instalazioa kontrolatzeko pantaila, eta abarren diseinua eta azalpena: 10 puntu.

Guztira

100 puntu

Gauzatzeko epea: 6 aste

Eskaintzetan sei asteko gauzatzeko epe maximoa betetzeko konpromisoa jasoko da, ondorengo paragrafoan adierazitako datetan, lehiaketa honen xedea den muntaia gauzatzeko.

Eraberritzea 2011ko abuztuan eta iraileko lehen hamabostaldian egingo da. Obren hasiera aurrera daiteke, obrek Legebiltzarreko jardunean eragin ditzaketen gorabeheren arabera.

34.3.- Balio-judizio baten arabera kuantifikatu behar diren irizpideak nagusituko diren salbuespenezko hipotesia (bai/ez): organismo tekniko espezializatu identifikatu batek aditu-batzorde bat edo ebaluazio-batzorde bat osatzea: ez da aurreikusi.

34.4.- Hala badagokio, esleipen-irizpide desberdinak ezarriko diren proposamenak baloratzeko faseak, ezarriko diren hurrenkeran zenbakituta eta puntuazio-atalase minimoaren arabera (prezioaren edo eskaintza ekonomikoaren balorazioa, balorazioaren azken fasean egingo da): bai

34.5.- Bajen izaera ezohikoa edo proportziorik gabekoa antzemateko mugak, balora daitekeen irizpide bakarra prezioa denean: HAKLren Araudi Orokorren 85. artikulutik ondorioztatzen direnak.

34.6.- Hala badagokio, balio ezohikoak edo proportziorik gabekoak banatzeko irizpide objektiboak, esleipena egiteko esleipen-irizpide bat baino gehiago kontuan hartu behar denean.





35.- LIZITATZEN DUEN ALDEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA (karatula honen 33. puntuan zehaztutako esleipen-irizpideak baloratzeko):

35.1.- Formulen bitartez balora daitezkeen irizpideak baloratzeko, A gutun-azalean aurkeztu beharreko dokumentazioa zehaztuko da. Modu berean,

kuantifikazioa balio-judizio baten mende duten irizpideak baloratzeko, C gutun-azalean aurkeztu beharreko dokumentazioa zehaztuko da.

35.2.- Aipatutako irizpideen artean “beste hobekuntza batzuk prestazio osagarrietan, beste esleipen-irizpide batzuetan barne hartu ez diren agindutako betebeharrei dagokienez” kontzeptua jasotzen bada, 16.1. klausulan eta pleguaren II. eranskinean aurreikusitakoa jarraituko da, betiere ondorengo mugak eta baldintzak finkatuta ote dauden kontuan hartuta: ez da aurreikusi.

36.- ENKANTE ELEKTRONIKO BAT EGITEKO AUKERA AURREIKUSI DA (bai/ez): ez.

37.- ESLEIPENEAN PLEGUAREN 13.2.10. KLAUSULAN JASOTAKO LEHENTASUNAK APLIKATUKO DIRA: ez.

38.- ORRI HONETAN AURREIKUSITAKO EZ GAIN, KONTRATU HONEN BESTE ZEHAZPEN OSAGARRI BATZUK: ez dira aurreikusi.

